

## **ARABA**

### **MAHAI TENISA ORORENTZAT**

Planteatzen da hezkuntza integralaren kontzeptutik sustatzea kirola, jarduera fisiko eta kirolekoetan joera pedagogiko berriak sartuz pertsonen garapenean funtsezkoak diren aldetik. Honako hauek dira oinarrian:

- Nortasunaren garapen betea.
- Funtsezko eskubide eta askatasunekiko errespetuan eta tolerantzian, bizikidetzako printzipio demokratikoetan eta horrelakoetan prestatzea.
- Bizimodu osasungarriak norberegantzea.
- Gizarte eta kultur bizitzan aktiboki parte hartzeko prestatzea.

Proiektu hau, eredu integratzailea da, hezikidea, partizipatiboa eta egokitua. Denen parte-hartzea bultzatzen du, espezializazioa baztertuta. Eredu honen helburu nagusia da dibertituz ikastea, jolastuz heztea. Baztertu egiten ditu frustraziora eta kirola uztera eramaten duten beste eredu batzuk. Azken batean, honako hauek dira programaren ezaugarriak, labur esanda:

- Partizipatiboa: parte-hartzaileen dibertsitatea kontuan hartzen da.
- Hezikidea: sortzaileari eta ludikoari lehentasuna ematen zaio, eta balioetan hezten da.
- Egokigarria: norbanako bakoitzak bere neurritik jolasten du mahai-tenisean, bere gaitasunaren mugen barruan praktikatu.
- Integratzailea; ez du inor alde batera uzten.
- Osagarria: parte-hartzaileen prestakuntza fisiko-kirolekoa garatzeko balio du, eta jarduera osasungarriak egiteko modua ere bada.
- Koordinatua: antolatzen eta kudeatzen esku hartzen duten eragileek beren ahaleginak koordinatu behar dituzte, programari koherentzia emateko eta baliabideak eta emaitzak errentabilizatzeko.
- Osasungarria eta segurua: kirol hau egiteak ez dakar arriskurik egiten dutenen osasunerako (osasun fisikoa eta psikikoa).

#### IKASTAROAK

Mahai-tenisean lehen aldiz hasten diren ikasleengana bideratuta. Gehienez, hiru hilekorako eman dezakete izena, desgaitasun intelektuala dutenen kasuan izan ezik, hor ez baitago mugarik.

70 lagun, 12 urtetik 99ra bitartekoak, sei taldetan banatuta sei instalazio desberdinetan; talde 1 desgaitasun intelektuala dutenena (APDEMA).

#### TXAPELKETAK:

Eskola eta federazioaren txapelketen paraleloan igandeetan antolatzen diren zazpi herri-txapelketetan parte hartu dezakete.

#### DATAK:

2017ko azaroak 12, 2017ko abenduak 17, 2018ko urtarrilak 21, 2018ko otsailak 11, 2018ko martxoak 11, 2018ko apirilak 15 eta 2018ko maiatzak 13.